

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko abenduaren 11

Egunkaria

Gehigarri honetan

Larraun • Hasi dira Bide Berdearen lanak. **Mikel Olano** • “Leitza eta Aresoko hizkerak ere badira Nafarroakoak”.

Txirringaren aienean



361 egun

Amaia Elosegik eta Esther Mugertzak txirringaz Turkiatik Myanmar-era urte batez egindako bidaiaren bizitakoak kontatu dituzte Txalaparta argitaletxearekin kaleratu duten Txirringaren aienean liburuan. Nafarroatik abiatuta, txirringaz egindako 10.000 kilometrotan bizitako gazi eta gozoak pedalei eragiten utzi ondoren kontatu dituzte, irakurleari “guk bidaiaren ikasi eta gozatu adina ikasten eta gozatzen” laguntzeko besterik ez bada ere.

Larraun • Hasi dira

Bide Berdearen lanak

Udako bukatua izango da Plazaolaren trenbide zaharraren ibilbideko konponketa

Lanak zein enpresak egingo dituen erabaki eta gero, gutxiago falta da tren zaharrak egiten zuen bide bera egiteko aukera izan dezaten, bai turistek zein bertakoek ere.



Uitziko tunela, garaian Nafarroako luzeena izan zena konponduko dute. ● PRINCIPE DE VIANA

UDAN JAKINARAZI ZUEN Espainiako Gobernuak diruz lagunduko zuela Plazaola Partzuergo Turistikoak aurkeztutako Bide Berdea eraikitzeko asmoa. Partzuergoak, sortu zenez geroztik, trenbide zaharra berreskuratzea zuen helburu, baina proiektu hau urte luzez egon zen Madrilgo baiezkoren zain. Horrela, abuztuaz geroztik, eta orain arte, eraikuntza enpresek zabalik izan dute bere proposamena luzatzeko epea. Azkenik, Madrilgo Pecuneren esku utzi dute lanen ardura, enpresa horrek 99 milioi pezetako aurrekontua aurkeztu baitzuen (3,98 milioi libera), hasieran uste zen aurrekontua baino 45 milioi pezeta merkeagoa.

Orain hasitako lanok, proiektuaren lehenengo fasea osatzen dute, hau da; Lekunberri eta Uitziko tunelaren artekoa. Guztira, bost kilometro dira berritu eta txukundu beharrekoak, aurrikusitakoa betetzen bada behintzat, abuzturako bukatuko dute fase hori. Gauzak agindutako moduan eta behar bezala bete daitezke aztertzeke, Partzuergoak bi teknikari kontratatu behar ditu, nahiz eta hauen zuzendaritza Espainia-

ko Ingurugiro Ministerioari dago-kion. Hala ere, Partzuergo, Ministerio eta enpresaren arteko harremanak onak direnez, elkarlanean burutuko dituzte obrak. Egin beharreko lanak desberdinak dira.

Hainbat lan egingen da Lekunberri, esaterako, ez dute kasik ezer egingo. Konpontze lan txiki batzuk baino ez. Etxarrin ere, ez dago egin behar gehiegirik. Bada bertan Bartolo izeneko tunel bat, oso egoera kaxkar eta arriskutsuan dagoena. Tunel hori egokitu egingo dute orain, eta tunela inguratuko duen bide aldapsu bat jarriko dute. Bartolo eta Uitziko tunelen artekoa da, halare, lanik gehien behar duen bide zatia. Izan ere, Uitziko eta Lekunberri arteko errepidea egin zutenean, trenbide zaharra desagertarazi zuten, eta hori berreskuratzea nahiko nekeza izango da. Bi metro pasatxoko pasarela bat eraiki asmo dute bide zati horretan. Garbiketa lanak garrantzitsuak dira ere, larreak eta arbastak ugarriak baitira zati horretan. Aipamen berezia merezi du Uitziko tunelak. Vicente Vitoria projektua-

ren ingeniariaren ustez, "Uitziko tunela eraiki zenean, ingenierian izugarrizko aurrepausoa suposatu zuen, hiru kilometroko luzera duten tunelak gutxi egiten baitziren garai hartan". Hiru kilometro horiek argiztatu egingo dira, eta ubideak eraikiko dira, hezetasun handiko tunela baita Uitzikoa. Dena den, tunela zeharkatu nahi ez duenarentzako, hura inguratuko duen bidexka bat egingo du-

te, eta tuneletik barrena pasa nahi duenari, zamarra eta eskuargia eramateko eskatuko zaio. Guztira, bost kilometrotako ibilbidea da lehenengo fase honetan bildu dena. Hau eraikitzen den bitartean, Plazaola Partzuergo Turistikoek bigarren fasea dute buruan, hau da, Uitziko eta Gupuzkoako muga bitartekoa. Leitza aldekoa, alegia. Hura burututakoan, Partzuergoak dagoeneko

eskaintzen dituen Aralar, Araitz-Beteleu eta Orgiko ibilbideei, trenbide zaharrarena gehituko zaio. Hau ere, Ibiltarien Abarotik abiatuko da, bertan eskainiko baizaizkio argibide guztiak bisitariari. Hori bai, oinez, zaldiz, edo txirrindulaz bakarrik egin ahal izango da bidea, inolaz ere ez, autoz edo motorrez.

→ Urko Aristi

muga enea

MIKEL REPARAZ



Netanyahuk ere Agur Yaunac dantzatzen du

Soldadu israeldarrak imajinatu ditut Sakanako mugetan, Sakanako lurralde Autonomoaren atarian. Pasaporte eskatzen diete Iruñera egunero lan egitera joan ohi diren auto gidariei. Ekialdeko Iruñeako palestinoei legez. Eta haiekin batera nafar izorratuak gogoratu ditut, Ekialdeko Jerusalem bizi diren haiek, edo eta Ramallahko karraketan harriak botatzen dituzten beste haiek. Imed bezalako palestinoak. Imed hogei bat urteko polizia palestinarra da, Rammallah hirikoa; zipaioa batzuzentzako, terrorista besteendako. Imedi Banu Kasi familia datorkio burura Nafarroa aipatzerakoan, zuek nafarrok arabiarrek zaretela, gu palestinarren oso antzekoak, ia anaiak era bagarela.

Israelgo sefardieki Tuter eta Lizarrako auzo juduak ezagun egiten zaizkien bezala, arabiar eskolatuek aisa naratuko dizkizute irribarrea galdu gabe zure herriaren historiaren atal ahantziarik, ikastola zein eskola publikoetan inoiz ikasi ez dituzun haiek. Imedek ez daki, orde, berak uste baino antzekoagoak garela finean. Benjamin Netanyahuk Arafatekin hitzartutako akordioak betetzen ez dituen bitartean, gurean ere uzkipenik pasatzen dituztela zenbaitzuk Parlamentuaren erabakiak. Eta hori aditzean ere imedek ez du irribarrea galdu, sasi-polizi lanak utzi eta hoteleko sukaldetan lan egitera joan beharra duela desenkusatu dela-rik. Palestinan, gurean bezala, inork ez baitu deus ere sinisten, eta

plantazio izena duten akordioek barrea baino ez baitiete eragiten, nigar ez egitearren irri egiten baitute palestinarrek. Soldadu israeldarrak imajinatu ditut atzera Ultzamako Lurralde Autonomoaren ataritan, eta pasaporte jakaren barrenean daukadalakoz lasai hartu dut arnas. Galileako mezikitak israeldarren zabortege bilakatuak direla gogoratu dut gero, eta Jerusalemeko bikote juduz ereindako parke publikoaren belardia noizbait -asko ez dela- hiriko hilerri arabiarra izan zela. Eta Sanduzelaiko semaforoan gelditu naizenean, Tel Aviveko aireportuan senditu nuen sentsazio berberak asaldata nau. Ameskaiztotik atera gabe, gorbatadun koadriela bat ikusi dut, bufoneak bailiran, Agur Jaunak dantzatan.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Euskararen alde kafe hutsa

Kafe hutsa gustatzen zait neri. Euskalzaleak direla susmoa hartzen dudan tokietan, bada-kizue: ezker abertzaleko ikur-rrak edo moderatuen zurezko aitonamun-pipadunak ikusten ditudanean, horrela eskatzen dut ere. Euskaraz esan nahi dut: "kafe hutsa". Euskararen alde: kafe hutsa! Atzokoan zorrioneko hitz bi hauek aditu eta tabernari gazteak baietz egin zuen buruarekin eta makinara ziztu bizian joan zen. Euskaldunen kopurua gora dihoala ikustek izugarri poztu ninduen. Gazte hori, esate baterako. Niretzat guztiz ezezaguna zena. "Auzoko beste euskaldun bat ezagutu duzu Xabi. Hau geldiezina da!"-pentsatu nuen. Barrara igotzea pensatu nuen ere. Donibane auzoko Lenin baten antzera diskurso bero bat botatzeko irrikitan nengoen: "Izan direlako gara (pausa dramatiko) garelako izango dira. (beste pausa dramatiko bat). Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak.... eta abar eta abar". Tabernari gaztea bezero guztien aurrean zoriondu nahi nuen. Merezki zuen. Ez da errexa, ez horixe, euskara ikastearena. Euskaldun berri baten atzean urteetako lana dago. Mamuen antzera lan ikustezin bat da. Mamuek ez bezala arrastaka darabilzkiten kateek hotsik gabekoak dira. Tabernan zeuden gainerako belarri-motxek esfortzu horretaz ez jabetzeak amorratzen ninduen. Zoriontzeara gutxi iruditzen zitzaidan, bere jarrera eredu-garria goraiatu eta gainerakoentzat euskara ikasteko motibagarri izango ziren hitz eder batzuk lotu nahi nituen. Nafarroako euskal toponimo batzuen istorioak ere, bitxiak bezain ederrak, banituen buruan; bezeroei Nafarroako euskal nortasunaz pentsarazi, eta nolal, egingo zizkietenak. Nire azken pausa dramatikoaren bukaeran bezero guzti guztiek, besoak altxatuak, eta "gu ere euskararen alde" oihuka agertu zitzaizkidan irudimenean. Garaipen kutsuko gogoeta hoietan murgildurik nenbileren zerbitzari gaztea, burutazio denbora guzti honek iraun zuen bitartean makina aurrean pentsakor eta batez ere geldirik egon zena, tramankuluarekin hurbildu eta «con leche has dicho?» galde-tu zidan. En fin, barrara igotzearena hurrengo baterako utziko dugu.

Lizarra ●

Txotxongiloak gertutik ezagutzeko aukera

Txotxongilo emankizunak zein erakusketa ikusgai

Gaur hasi eta datorren astean zehar Lizarrako umeez hiru txotxongilo emanaldi ikusteko aukera izanen dute. Tartean, 'Txotxongiloen artea' erakusketa izanen da zabalik Kultur Etxean.

HARITXO IKUSTEZIN BATEAN ES-kegita daude piltzarrezko panpinak. Arnarik gabe. Biruen bestaldean, berriz, eskuak. Eskuen mugimenduak gidatuz burua eta bihotza. Eta pertsona eta panpina bat eginez, historia magikoa osatu daiteke. Hauxe da txotxongiloaren mundua, fantasia eta egunerokotasuna nahastuz, ikuslearen irudimena pizten duena. Eta, txotxongiloen mundua gertutik ezagutzeko aukera izanen da Ega ibaia zeharkatzen duen hiruan gaur hasi eta astebe-te osoan zehar. Batetik, *Txotxongiloaren artea* erakusketa izanen da zabalik Kultur Etxean eta bertetik, hiru emanaldi izanen dira.

Txotxongiloen artea erakusketak Corrado Masacci txotxongilo egileak hamasei urtetan osatutako marioneta sorta bildu du. Tartean mundu horrekin ezinbesteko lotura duten aunitz elementu ere ikus daitezke; hots, txotxongiloak



Gorakada taldeak *Txanogorribo* lana taularatuko du datorren ostegunean. ● AITOR GORRIA

egiteko garai ezberdinetan erabili izan diren osagaiak. Gauzak horrela, aitzinean hasi eta gaur egun arte txotxongiloak izan duen bilakaera ageri da bilduman. Halaber, munduko herrialde bakoitzean txotxongiloen pareko izan diren bertzelako panpinak ikus daitezke. Horren lekuko dira Rajastan (India), Java eta Balioko maskarak, zein bertze hainbat herrialdeetako titereak.

Corrado Masacciren ustez txotxongiloen mundua arte bat da eta arte txiki horren historia bertzela-

ko arte nagusiekin dago lotua. "Arte hau, musika, margoa, eskultura, dantza eta antzerkiaren sintesia da". Massacciren aburuz, erakusketa omenaldia da eta bere xedea txotxongiloak jendaurengana hurbiltzea da.

Emankizunei dagokionez, orotara hiru saio izanen dira, gaur aurrenekoa, ostegunean bigarrena eta gaur zortzi azkenekoa, hirurak 18:00etan Kultur Etxean.

Titeres Boca Rica Bartzelonako taldeak *Cucudrulu* lana eskainiko du gaur Jordi Bertranek. Lana

Goizueta

Gaur jokatu da Xalto bertsolari txapelketaren finala

NAFARROAKO BERTSOLARI GAZTEAK biltzen dituen bortzgarren Xalto sariketaren finala gaur jokatu da Goi-zuetako Umore Ona elkartearen. Bertsolari gazteei bidea ireki eta erraztu nahirik edo, Nafarroako Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartzen ez duten gazteek parte hartu dute aurtengo txapelketan. Hortaz, joan den urtean irabazle izan zen Xabier Legarreta aranoarra, ez du bere txapela defenditzerik eduki. Saioan sei bertsolari ariko dira kantuan, guztira hamabortz bertsolari elkartu ziren sariketan. Goizuetan kantuan ariko direnak Amets Arzallus, Miren Artetxe eta Sustrai Kolina hendaiarrak eta Bortzirietako Bertso Eskolako hiru kide izango dira: Julen Zelaieta beratarra, Ekhine Etxepeteleku lesakarra eta Alaitz Rekondo lesakarra.

Epaimahaian Xabier Legarreta iazko txapelduna, Aitor Sarasua eta Saioa Mitxelena beratarra ariko dira.

→ Jon Abril

aintzira batean egokitua dago eta han kokodrilok dira jaun eta jabe. Bigarren emankizuna, ares-tian erran bezala, ostegunean izanen da. Gorakada taldeak *Txanogorritxo* ipuina taularatuko du euskaraz. Taldeak X. urteurrena bete berri du eta hori ospatzeko txikienezko ikuskizuna prestatu du, eskularruzko txotxongiloekin eginikoa. Azkenik, Teatro de Medianoche konpainiak *Chanto pata negra* ikuskizuna eskainiko du datorren ostiralean. Bertan, animalien bidez pertsonen arteko erlazioak eta izaerak ageridira, erreflexiorako tartea irekiz.

→ Kristina Berasain

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

'Kantiruri'

Herria astekariak Pantxika eta Graxi Solorzanok plazaratu *Kantiruri* diskoa aipatzen du bere azken zenbakiko orrialdeetan: "Ikas elkartearen kondu, *Kantiruri* konpaktiska jalgi da hogeitabost kanturekin paratua. Hitzak Graxi Solorzano azkaindarrak emanak dira eta musika Pantxika haren alabak".

Herriako kideak Graxi Solorzanorekin mintzatu dira, bere lan berriari buruz. "Neroni erakaslea naiz ama eskolan eta lehen mailan eta beste erakasle frangok nik bezala eskasia bat sentitzen genuen ama eskolako haurren kantetan. Egia da Imanol Urbietak

egin duela lan gaitza baina behar bada bertaldeko giroan pentsatua. Nahi genuen zerbait lapurtarrez entseiatu eta horra beraz *Kantiruri*. 25 kantu tiki dira. Behararen arabera asmatuak: demagun udazkena zer den esplikatuz behar zela, orduan horretaz egin dugu bat; gero haizea etorri da, laister ondolik negua, gero elurra... urtean barna egin dugun lana da; larunbatetan elgarretaraten ginen eta kantu bat edo beste egiten elgarrekin. Lehenik pentsatzen genuen zer kantu mota behar zen, nik hitzak pentsatzen nituen aspektu pedagogikoa gogoan izanik: zein hitz berri ikas ditzakeen hau-

rrak, nolako hizkuntz egitura beretu dezakeen karia horretara. Pantxika aldeko gelan ari zen musikaren asmatzen. Bata eta beste biltzen ginen gure lanen bateratzeko ondolik", azaldu du Graxi Solorzanok **Herrian**.

Diskoarekin bete nahi dituzten helburuak aipatzen ditu Solorzanok, halaber, elkarrizketan: "Bixtan da haurren hizkuntzaren aberastea genuela helburu baina horrekin batera musika eta motrizitate proiektuak ere landu ditugula. Horrengatik agertzen da konpaktiska kantuarekin, bainan ondoan dago liburuxka bat hitzekin eta kantu bakoitzari doakion jokoarekin".

Txirringaren aienean

Amaia Elosegi eta Esther Mugertzak Istanbuletik Ranguneraingo 10.000 kilometroko bidea bizikletan egin eta euren bizipenak liburu batean bildu dituzte

«Orain ere ni atzetik, ezin neska sasoitsu honi hurbiletik segi. Eragin pedalei neska, bat, bi, bat, bi, erritmoa hautsi gabe». Neure burua animatu beharra daukat. «Hori da hori maldatzarra datorkidana, eta bizikleta pisu honekin...»



Burutaziotan murgilduta eman ohi genituen bizikleta gaineko ordu anitz, bizikletaren izate isil, lasaiarekin bat eginez. Arrasto xumea baizik ez baitzuen uzten, lehenengo euriteak desagertaraziko zuen marra fina. Guk hautatuak eritmoan eramane ohi genituen, inoiz ez kezu, zokorik ezkutuenerako garraibide, kutsatu gabe, hotza, beroa, alaitasuna, tristura, herritarrekin harreman zuzen eta estua izateko aukera paregabe eskainiz. Nahiz eta batzutan txirringaren aienean gu ere hasperenka joan...

Emakumekiko identifikazioa

Iluntzeko ordua ere hurbil zegoen, eta lo toki bila hasia erabaki genuen. Aldapa gogor bat igo ondoren ikusi genituen herriko lehen etxeak, herritarrek ere bai errekan arropa garbitzen; emakumeak ziren guztiak, kurduak. Berehala hasi zitzaizkigun hurbiltzen. Gortik behera begiratu gintuzten, eta atzetik aurrera ere bai: gure janzkerak nolakoak ziren, egiazkoak ote ginen; irrifarrak ageri ziren haien eza-painetan. Lo egin nahi genuela, lotoki bila genbiltzala adierazi nahi genien. Gugana gehiago hurbildu ziren eta ukitzera ausartu ere bai. Zangoak ukitu

AMAIA ELOSEGI



zizkiguten lehendabizi, gero, laztanekin jarraituz, gorputzeko beste atalen txanda izan zen. Benetan, hezur mamizko ginela, eta emakume ginela egiaztatu nahian zebiltzan, gurekin identifikazioa topatu nahian. Izan ere, ez hizkuntzak, ez janzkerak, ez erlijioak, ez bizimoduak ez gintuen elkartzten, bai, ordea, emakume izateak. Berrogeiren bat emakume izango genituen inguruan. Gorputz osoko laztana, masailan muxu

Sutondoan, hotzari desafio

Rakaphosi mendiaren magalean hotza zen nagusi. Gure bizikletetako ur botiltxoak izotz pusketa mardulak ziren, bidea ormbabide amaigabea. Zinbuluka eta zanbuluka ibili ohi ginen orekari eutsi nahian. Irrist egin eta erori ere bai. Baina jaiki eta tinko jarraitzen genion bideari. Halare, hotz eta izotzaren lurraldeko xokorik ezkutuengana, bizitza eta jakinduriaren irakasleak ere ezagutu genituen. Orduak eman genituen bizitzaren filosofoen alboan adi eta galdezka, jakinminnez betetako haurren modura. Sutondoan, subazterrean, termometroaren -30°C-tako hozberoiari desafio eginez, suaren garrek eta herritarren kontuek sorginduta, Karakorum azpiko hunzukuten bizitza pixka bat gure eginez.

Gaueko bisitaria

Shimlako ostaturko harreran tximuekin kontuz ibiltzeko zioen. Ateak eta leihoak ongi itxteko. Gau sargoria zen, bero sapa. Seigarren solairuan eman ziguten ostatu. Oheratu aitzinetik, eraikuntzaren orma leunei erreparatu genien. Ez zegoen arduratu beharrik; euskalirik gabeko paretetik ez zen tximinorik igoko.

Goizaldera kolpe bortitz batek ernarazi gintuen. Gau iluna zen. Jauzi batean ohetik jaiki nintzen: ez nuen deus ikusten eta argia piztu asmoz hurbildu nintzen ate ondora. Sorbaldan esku handi bat nabaritu nuen. Uaaaaaaa! oihu egin nuen. Tiki nire alboan nabaritu nuen egurrezko arrabola eskuan hartuta.

- Ken hadi hortik, honek ez din asmo onik!



ESTHER MUGERZA



AMAIA ELOSEGI

- Baina nor zabilen hemen? -galdegin nuen, salto bat eman nuen aldi berean. Halako batean, hiriko argi islatzen artean, sekulako siluetazarra leihotik ateraten ikusi nuen. Arnas estu-


ka nengoen, bihotza bere tokian ezin kabituz. Eta ez zen amesgaiztoa. Esna nengoen.

Euskal Herriko Olentzero

- Iuufio! Olentzero heldu zaigu!
- Olentzero? Zer dion?
- David Olentzero heldu zaigu.
Zortzi hilabete generaman euskaldunik eta are guttiago lagunik topatu gabe. Era halaxe etorri zitzaizun David Euskal Herriatik, herrimina asetzeko adinako opari, goraintzi eta kontuekin. Etxetik bidalitako gazta, piperrak, esparragoak, urdai-azpikoa, ardoa, sagardoa... eta familiako en, lagun eta gutxien espero genituenek izkiriaturako hitz goxo eta samurrak. Euskal literaturako azken libururak eta azken zortzi hilabete-tako egunkari zatiak. Hain luzaroan arropa jan eta gidaliburua soilik irakurri ondoren, ah zer besta! Ordu batzutan etxera itzuli ginela zirudien, gure baitako guztiak dantzara harrotu ziren. Baina, Asiako hamaika txoko genuen bizileku, nepaliarrak bizilagun, urruntasuna eta denbora lekuko.

Txinan atxilotuta

Goizeko hamaikak ziren poliziak geldiarazi gintuen. Eurria ari zuen gogotik. Bidea zeharo lohizatua zegoen, berritze lanetan ari baitziren. Gortik agindua jaso zutela eta, komisaldegira eramane gintuzten. Zortzi-hamarren bat polizia inguruan. Bezerarik arazorik ez zuen ingurunea, «turistentzako ingurune itxi» bilakatu zen gauetik egunera. Handik hiri nagusiko komisaldegira. Ordu eta erdi zain. Polizia mozoloa gure zaindari. Bederatzi ordu atxilo-



AMAIA ELOSEGI

tuta. Gure hutsegitea: bizikletaz ibiltzea. Non, eta milioika pertsona bizikletaz dabilen lurraldean. Sekulako isuna ordainarazi nahi ziguten. Zinez, ez genuen hainbeste diru aldean. Negarrez, ikasle ginela argudiatuz isuna erdira jaitzea lortu genuen. Halere, Txinako lantegi arruntaren hilabete luzetako soldata adinakoa zen. Ez genuen beste aukerarik, ordaindu edo giltzpera. Txinako oihaneko atzaparretan jausi ginen, gobernua ustelkerian, turismen kanpertsatza ez izatearen ordaina jasan genuen, kanpotarrekiko arrazismo instituzionala. Txina madarikatua.

Idaztea, bigarren bidala

Txirringaren aienean baino, gu geu aienea, hasperenka, maldizioka eta eztabaidaka aritu gara berria dugun idazle langintza honetan. Loari orduak ebatsiz, 361 egunetako kontuak 361 orritan nola moldatu, tajutu, atondu, txukundu, asmatu nahian. Txirringaz egindako 10.000 kilometrotan baino maldaga gogor eta garaiezina ziruditen oztopoak gainditu behar izan ditugu, bospasei diariotako kontuak, oroi-menak, entzundako eta ikasitakoak zuzen eta artez egokitze. Pedalei eragitea ahantzi ote dugun beldur gara, baina hori ez omen da sekula ahazten. Txirringaren aienean bidaiatuz, guk gerorrek bidala ikasi eta gozatu adina ikasten eta gozaten badu irakurleak, aienerik gabeko patxadan abiatuko gara, neke arinduta, bizitzen segitzeko grinaz.

→ Amaia Elosegi - Esther Mugertza

Joxemiel Bidador

Eleizalderen gaineko liburu berri batez

Pasa dira jada Durangokoaren urrinak, eta hartan estrainekoz agertzeko karrikaratu, ez bazen ere, gure honetatik bertaratu abondo nafarrek -lapurtar eta zuberotar hainbatek, akaso, ere bai- liburu azokan ikusiko zuen lehenbizikoz. Izan ere, aurtengoan agertu baita Esteban Antxustegiren *Luis de Eleizalde: un vasco polifacético* liburua, Sabino Arana Kultur Elkargoaren babesean, Eleizalde bera zendu zeneko 75. urteurrenean berean



EZ DA ALEKI ILUPEA, ORRI KOPURUARI bagagozkio bederik ere; alta, niketz, nahikoa asegabe geratu naiz, gose mikatz gainera, bada, zail samarotu zait pertsona bera ikergai lezakeen liburua arra-argitara emanen denik, eta honakoak ez du galdera guztiei erantzunik ematen; esate baterako, liburuaren bukaeran Luis Gezalak dakarkigun krestomatian ez dago testu bat ere euskaraz idatzirik, Eleizalderen langintzaren arras gauza ereduagarria izateaz aparte, bergararren teorizazioa zertan den ikusteko aukera aparta ematen duena. Gezurra dirudi, horrelako aitaponte hantustek dituzten liburuak kontu handiagok ez egitea, baina ohituratzen hasia naizelako ustea nagusitzen zait horrezkero.

Luis Maria Ignazio Jose Ramon ezarri zioten grazia baitaio-harrian gurasok 1878.eko ekainaren 9an. Aita, Luis Maria Eleizalde Izagirre zuen, filosofiazko kataderadun errezildarra, eta ama, berriz, Aretxabetan jaioa izan arren, askazi-erroak Cordoban eta Toursen zituen Maria Belen Breñosa Tejada-Means genuen. Ez dakit sendikoa ote zuenentz, nahiz hori pentsatzeko adina intuizio badaukadan, baina ia seguru da, Bergarako San Pedroko koadjutoria zen Jose Tomas Eleizalde ezagutu zuela, orobat euskaraz tajuturik laga zituen lanak, hau da, Madrilen 1878.ean ateratako *Cristauaren gordairua edo anima salbatzeko sinistu eta equin bear dan gucia hitz bitan*, eta Claretan itzulpena den *Anima baten iru egoérac*, Bartzelonan 1879.ean eta Bergaran 1888.ean agertu zena. Arana-Goirik ondu lanaren

ezagule goiztiarra, berehalakoan egin zen jeltzaleen jarraitzaile; 1901.ean jada Euzkadi aldizkarian argitaratu zituen bere idazkiak Iturraiz ezizenean, baita Patria eta La Patria paperetan ere. Hau zela eta, Larrinagako gartzelan izan zen, Engrazio Arantzadirekin batera, Iberoko Ebangelistaren Ami vasco sonatuaren eskuizkribuak zuzentzeko aukera eman ziona. 1907.eko maiatzaren 18an agertzen hasi zen Gipuzkoarra astekariak Eleizalderen zein beste jeltzaleen lanak eskeini zizkigun, halaz guztiz, Eleizalderen eskua aipatu Euzkadi aldizkaria ordezkatzerako etorriko zen izen bereko egunerokoa nabari egin zen, batik-bat, Arana-Goirik berak zuzendari egin zuenetik, 1913.az geroz alegia.

Esan guztietan, eta geroagoko beste hamaiketan ere, erdera izan zen Eleizalderen tresna nagusia, baina Akademia sortu zen une beretik Euskaltzain izateko naroago zukeen euskararekiko harremana, egitan, izan zen moduan, eta, antzadenez, gaur geroz ahantzi egin den ber. Euskaraz idatzi zutenaren artean, gutxi zitekeen helburu literario zezakeena, ezpada borobildu zituen hainbat olerki -bestalde ere, hagitxarrak ez ziratekeenak, bada Onaindiak atondu bere mila euskal olerki eder bildumarako gutxienez bi jaso baitzituen, *Arantzazuko amari* eta *Superflumina Babilonis*-, eta han eta hemen larga zituen itzulpen eta kontu labur, kasurako, *Euzkadi* aldizkarian Walter



Scott-en *Halidon Hill* lanaren euskarapena *Halidon Murua* izenburupean, edota 1910.eko *Euskal Esnalea*-n atera Ortze-gayak izenburuko artikulua, Auñamendiren bilduman bai jaso zigitena.

Hezkuntzaren arloan, berriz, betiere izan zituen asmo pedagogikoen inguruan haurrentzako idatzi zituen *Euskal zenbakistia* eta *Euskeraz irakurtzeko irakaspidea* aipatu behar dira. Eliz liburuak ere utzi zizkigun, hobesten zuen hizkuntzaren eredu bereziki; *Gurutza deunaren bidea*, Amorebietan 1917.ean atera zen, eta 1909.eko *Euskal Esnalea* zein 1913.az gerozko *Euzkadi* aldizkarietan Kenpisen *Kristoren antz-bidea* eman zuen argitara. Bigarren honetaz, Villasantek aditz sintetikoaren neurritz gaineko erabilera aipatu zigun lanaren itsusgarri, eta Eleizaldek aitzinarazten zituen berrikuntza aunitzen artean, horixe zatekeen, dudik gabe, egun bitxiin jazo dakigukeena. Teoria berria bere *Morfología de la conjugación vasca sintética* liburuan agertu zuen -Bilbo, 1913-, non bokalez edo [j]-z hasten diren aditz guztien konjugazio sintetikoa defendatzen zuen. Neurritz gainekoa dirudien honetan, haatik, baziren haruntzago oraino joan zirenak, esate baterako, Soloeta-Dima kaputxinoak eta Omabeitia fraide klaretianoak -azken hura Manuel Arriandiaga Gorozika elantxobearra, naski-, kontsonantez hasiriko aditzen konjugazio sintetikoa ere proposatzen zutenak, hots,

Patziku Perurena



Batanak, bartanal eta patanak

BATANA, MOTXEAN esanda, ehunki latza kolpeka joaz lantzeko eta tinkatzeko tresna hidraulikoa zen, ardatz batek eragiten zituen zurzko gabi haundi batzuk baizik ez zituena. Auskalo noiztik sartua zen gure alderdiotara, baina, kontua da XII garren menderako egiten direla tresna honen aipamen zehatzak.

Etimologia oso segurukoa ez bada ere, badirudi, arabierako «battân» aditzetik datorrela, izanez ere, arabiarrak, hagitx ikasiak eta trebeak izan baitziren nola hidraulika kontutan hala ehunki lantze eta saltze kontutan; beren menpeko sare osoa baitzuten ekialdetik mendebalderainoko bide luzean barrena, gerora tokian tokioek berenganatu zutena. Nafarroa alde honetan, behintzat, arrasto nabariak utzi ditu BATAN zelakoak.

Donezteben, Olalde izeneko lekuan ipar aldera, Ezpelura errekarren alde banatako mendimazelei deitzen omen zaie gaur BATAN, behiala erreka bazterrean izan zen kapusai fabrikatik inguruak hartutako izena, noski. Jose Zugarramurdi Zozayak hala esan omen zion Andres Iñigori: orain asko ez dela kapusaiak egiten zirela BATANen; baina joan den mendean «*caserio del batan, fábrica o edificio de batan, batanecoa*» eta antzera ageri den lekuan, orobe zahar batzuk baizik ez omen dira ageri orain.

Halatsu, Miel Luis Zestau Gorritzenekoak, niri Leitzan esana: «*Liberalak eta karlistek gerra izandu zuen garaian, liberal orik itten emen zuen, allatzen etxe guzitatik artute arrapatzen zittuen gauz guzik eaman; baita obetako manddare zurik!* Ordun BATANen, itten emen zittuen bartanak, mantak, kapusaiak eta olakoak; ta liberal orik ostutzen zittuen jenero guzik an almazenatzen emen zittuen».

Hantxetik, joan den mende erdira arte ehunki latza lantzeko ola zenetik, eta egun oraindik «Batango Presa» denekotik,

hartuko zuen gero Zortziko zenak ura 1905ean, lehenbiziko aldiz Leitzara argindarra zabalitzeko. Beste leku askotan ere berdintsu: joan den mendean itxi ziren BATAN fabrikak, gero errota edo argindar iturri bihurtu ziren. Betelun, esateko bateko, BATAN deitzen zaio oraindik bertako zentral elektrikoari. Barañainen, bertako errotari, «*Batan de Barañain*» deitzen omen zioten 1837n urtean, eta Astrainen bertan bada «*Batana*» oiconimoa, eta Etxarri Aranzan ere bai «*Bataniturri*» lekuizena; eta hola, beste leku askotan.

Badirudi BATAN fabrika maizenik *bartanak*, *manta lantzak*, *kapusaiak*, eta holakoak egiteko ehunki lantzen zirela, orduan endemas pobrejendeak erabiltzen zituenak, eta *kapusai / kapusail / kaputsail* hitzak, «*kaputx-saiak*» edo «*saial kaputxaduna*» esanahia gordetzen duela sorreran, eta *bartan* (*mantar*) bihurtzerak, agian, *mantazar*.

Dena dela, zamarginak, ehunki saltzaileak, hitz batean esateko, «*traperoak*», fama iluna ekarri du menderen mendetarik: *pobrea*, *zarpaila*, *tranposoa*... Horra langite honetatik erdarak bereganatu duen gaitzizen bat: «*patan*». Baina euskarak ere baditu ofizio beretik hartutako esakera franko: *lander*, *baldres*, *mantar*, *zatar*... guziak larru / ehunki izenetatik datozenak.

Hala eta guzi, Orotariko Euskal Hiztegiak BATAN hitzari atxekirik mentabelar izen bizkaitarrak besterik ez dakazki: «*aizpatan*, *astobatan*, *batan-uridin*, *sapo-batan*». Noiznahi euskaldunon ahotan dabilzan beste BATAN-ok ez ote dira euskara? Egia «*batan*» erdarazko hitza ere badela, *batanar* edo *batanero* bezalaxe, baina, nork esan niri, gaztelan bezain zaharra (eta berria) ez denik euskarari «*batan*» hitza? Segurantzila bila nator, halere. Segurrola izeneko filoloro batengana edo...

Ziria

• Motxorrosolo •

Hirugarrenaren bidea

BIDE MALKARTSUA AURREIKUSTEN ZEN, ETA IRAGARPENA BETE DA. Ekialderako orijinaltasuna anitzen eskaera, are gehiago, traba diren *argudioak* betikoak direla ikustean, herdoilurik izatearekin ere, ondorio berdintsuetara garamatzatenak. Aurrekoak erakutsi legez, hirugarren batek egin behar izaten ditu hurbilpen urratsak.

Mikel Olano  Filologoa

«Leitza eta Aresoko hizkerak ere badira Nafarroakoak»

Mikel Olano euskal filologoa Leitza eta Aresoko hizkerak lana bukatu berri du. Bi hizkeren kutsuak eta eraginak aztertzeaz gain, aipatu herrietako hizkerak ere Nafarroakoak direla errebindikatu nahi izan du. "Pentsatu izan dugu ekitaldeko hizkera horiek direla Nafarroari dagozkionak eta ez da horrela mugaotan", gaineratu du.

HAINBAT ETXETAKO BEHEKO suaren arrimoan bildutako solasaldien ondorioz lotutako ikerketaz bere etxekoaren berotasunean mintzatu da Olano. Lana egiteko lau urte behar izan baditu ere, pozik da hainbeste orduk uzta eman dutelako.

■ Zer jaso du azterketak?

Liburuak hiru zati ditu. Lehen-dabiziko zatian sarrera dialektologiko bat egiten da eta hizkeraok nozitu izan dituzten kutsuak zergatik gertatu izan diren. Zein kontakto historikoak izan diren Gipuzkoa aldeko herrieekin, eta Areson eta Leitza nolabait egiten bada euskaraz, zergatik egiten den. Bigarrenean atal linguistikoa landu dut eta, hirugarren zatian, berriz, transkripzioak, esapideak eta esaera zaharrak gorde ditut.

■ Kanpoko kutsuak batez ere Aresok izan dituela aipatu duzu, zergatik?

Leitzan hobekiexagoa mantendu da aspaldi mintzatzena. Ez dut esan nahi aldatu ez denik baina bai hobeki gorde dituela zenbait ezaugarri. Herriotan, eta, batez ere, Areson eta Araitz eta Bete-luko Bailaran gertatu da mugatik oso gertu daudela eta beren harremanak neurri handi batean Gipuzkuako herrie-kin egin dituztela. Arrazoi asko aipatu daitezke hizkera nola doitu den azaltzeko. Besteak beste, XVIII. mendera arte izan zen Tolosa eta Iruñea bitarteko errepidea. Hortik bideratzen zen garraio gehiena eta bide hori Areson gaineratu zen. Horrela, Areso komunikabideen aldetik Gipuzkuatik gertuago geratu da eta Leitza gordeago. Gordeago gelditze horri gehitu zaio handiago izatearena eta beste eragile batzuk. Eraginak jaso baino gehiago kanporatu egin ditu eta isoglosak jaso baino bidali egin ditu. Bittorio Lizarraga ikertzaile leitzarrak dio Leitzako hizkera hobekiago lotu daiteela Eratsundik honuntzako herrietako hizkerekin: Saldise, Eratsun, eta Ezkurra. Zaila da zehaztea zergatik dagoen muga hori: Leitza eta Areso artean egon den gatazka giroa, aresoarren izan duten bereizte nahia... hori ikertzekoa litzateke. Adibidez ingurotan 'j' bustitzea Leitzak bakarrik gorde du. Gorde baldin badu da hiztun kopuru handi samarra izan duelako eta gipuzkeraren ezaugarri horri aurre egin diolako. Orain XVIII. mendean jaiotako Leitzako apaiz baten sermoiak aurkitu dituzte eta hori ikusten da garbi Gipuzkeraren eragina. Alegia, gipuzkera zela status altua zuena. Sermoi horietan nabaria da baina badira Leitzako hizkeraren arrasto batzuk.

so gaineratu zen. Horrela, Areso komunikabideen aldetik Gipuzkuatik gertuago geratu da eta Leitza gordeago. Gordeago gelditze horri gehitu zaio handiago izatearena eta beste eragile batzuk. Eraginak jaso baino gehiago kanporatu egin ditu eta isoglosak jaso baino bidali egin ditu. Bittorio Lizarraga ikertzaile leitzarrak dio Leitzako hizkera hobekiago lotu daiteela Eratsundik honuntzako herrietako hizkerekin: Saldise, Eratsun, eta Ezkurra. Zaila da zehaztea zergatik dagoen muga hori: Leitza eta Areso artean egon den gatazka giroa, aresoarren izan duten bereizte nahia... hori ikertzekoa litzateke. Adibidez ingurotan 'j' bustitzea Leitzak bakarrik gorde du. Gorde baldin badu da hiztun kopuru handi samarra izan duelako eta gipuzkeraren ezaugarri horri aurre egin diolako. Orain XVIII. mendean jaiotako Leitzako apaiz baten sermoiak aurkitu dituzte eta hori ikusten da garbi Gipuzkeraren eragina. Alegia, gipuzkera zela status altua zuena. Sermoi horietan nabaria da baina badira Leitzako hizkeraren arrasto batzuk.

Leitzako hizkeraren arrasto batzuk.

■ Azken boladan tokian-tokiko euskararen inguruko hainbat azterketa egiten ari dira. Etxarrietatik Sakanerara aurkeztu da Durangon, aurki Arano eta Goizuetakoa kaleratuko da. Zein da lanon funtzioa?



soslaia

● MIKEL SAIZ

Saiatu naiz dibulgazioa egiten, baino gezurrik esan gabe. Era berean, nolabait, liburuarekin defendatu nahi nuke hizkerok ere badirela Nafarroakoak. Mito txiki bat egin da Baztaneko euskararen inguruan. Iruditzen zait Nafarroan bertako hizkera isladatu nahi denean testuetan asko jotzen dela ekialdeko euskarara, oso markatua eta polita delako, eta gipuzkeratik aldentzen delako. Pentsatu izan dugu ekitaldeko hizkera horiek direla Nafarroari dagozkionak eta ez da horrela mugaotan. Gaitsezen puntu bat ere bada inguruotako hizkerarekiko, Gipuzkerarekiko dagoen bezala. Behar bada ez dira Koldo Zuazok sailkatu zituen taldekoak, hizkera nafarrak edo, baina badira Nafarroakoak eta aintzat hartu behar dira.

■ Lehenagotik dagoenari zer berri ekarri dio lanak?

Leitza eta Aresoko hizkerari buruzko ikuspegi orokor bat jaso dut. Orain arteko azterketak mugatuagoak ziren. Bertako hizkera ikasi nahi duenarentzako baliagarria izan daiteke. Saiatu naiz 60 urtetik gorako hiztunen hizkera jasotzen orain beste bat erabiltzen delako herriotan. Bestalde, euskara batuarentzako ere material polita izan daiteke. Ez Areso eta Leitzako mintzoa erabili nahi duenarentzako, baizik eta euskara batuak har ditzazkeen materialak bereganatzeko.

Nafarroako Hizkuntz Politikaren eta Aresoko zein Leitzako Udalen laguntzarekin kaleratu du Mikel Olano leitzarrak *Leitza eta Aresoko hizkerak* ikerketa. Euskal Filologian lizentziatua lana egiteko berak jasotako materiala ez ezik, Patziku Perurenak utzitako hainbat transkripzio baliatu du. Dena den, Olanorena ez da kaleratuko den lan bakarra, aurki Juan Jose Zubirik Arano eta Goizuetako hizkeren inguruan egindakoa argitaratuko baitu.

Leitzako eta Lekunberriko IKAn irakasten ariua, Nafarroako Unibertsitate Publikoan fonoteka proiektu batean bekadun bezala lau hilabetez ariua eta gero, egun euskarazko klaseak ematen ditu Iruñeko Lanbide Heziketako Donapea Institutuan. Donostia hiria saria irabazi zuen.

Euskara ikasteaz gain, euskaraz idaztea ere gustoko du Olanok. Duela urte batzuk Donostia hiria sariaren irabazi zuen. Gaur egun tarteka idazten badu ere, ez du gehiagorako gogorik. "Norbera konturatzen da zenbat daukan esateko. Tarteka idazten dut baina ez du argitaratzeko asmorik", bukatu du.

■ Azterketak izanen du bigarren zatirik?

Ez dut uste. Dena den, muga arteko hizkerekin jarraitu nahi nuke.

■ Beraz, aurki izanen da beste azterketarik kalean?

Araizko eta Larraungo hizkera biltzen hasi naiz, Leitzan eta Areson aurkitu ditudan arrastoak zein hedadura izan duten ikusteko edo. Nolabait nafarrera eta gipuzkeraren arteko muga diren hizkera horiek nondik-nora doazten, zein eragina jaso dituzten eta hizkera horietatik zer intrahistoria azaldu daitekeen bildu nahi dut.

■ Beraz, oraindik badago non arakatu?

Bai. Leitza eta Areso hizkeraren gainean gutxi dago baina Araitzko eta Betelu aldekoan ere, ez dago lan monografikorik. Hizkera horiek galtzen ari dira. Inguru franko euskalduna da eta hiztunak beti egonen dira. Dena dela, etengabe ahoz aho transmititu den hizkera eta balio dialektologikoa duena galtzen ari da hemen bezala beste tokietan ere. Orain da garaia horri eusteko.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Pablo eta Garazi

Pablok hogeitau urte ditu, zori-
neko abenduaren sei horre-
tan jaio da. Antza denez, bere amak
ez zuen bozkatzeko aukerarik izan
erditzen ari zelako; hala ere, edo
agian horregatik, Pablo oso pozik
dago bere bizitzarekin eta bere mar-
koarekin. Ez du inoiz poliziaren
aurrean korrika egin behar izan,
baina jakin badaki bere gurasoen
garaietan guzti-guztiekin korrika
egiten zutela. Ez omen du inoiz irakurri
espainiarrek aho batez onetsi zuten
libruska gorri hura baina izan dai-
tekeen gauzarik egokiena iruditzen
zaio, ezpairik gabe. Une honetan
duen kezkarik nagusia ikasketak
bukatzerakoan lana aurkitzea da.

Ondoko hau ez didate telebistan
esan, nire lagun batek kontatu dit.
Badakit Matias Prats nire lagunak
baino fidagarriagoak irudituko zaiz-
kiola bati baino gehiagori, baina
tira...

Garazi aurten jaio da, hortaz,
Pablo baina hogeitau urte gazteagoa da.
Erditze zaila izan zuen eta honen
ondorioz bere osasun egoera orain-
dik orain makala da, hala ere, egu-
netik egunera sendoago ikusten
dute inguruko guztiak: hasiera bate-
an bizirik jarraituko ote zuen garbi
ez bazegoen, ematen du aurrera egi-
nen duela. Dena den, horretarako
zainketa berezia beharko du, berezi-
ki haurtzaroan. Ez dut ikusi, baina
esan didatenaren arabera Garazi
polita da eta kokortzen denean are
ederragoa izanen da. Aurten jaioa-
gatik ez du oraindik hitzegiten baina
senitartekoak ezagututa euskaldu-
na izanen dela ziur nago.

Ziurrenik Garazik ez du Pablo
ezagutuko; Pablaren hogeitau urteak
berrogei izanen dira Garazik hogeitau
egiterako eta hogeitau urte, segun zer-
tarako, alde handia dira. Gauzak
honela, bizitza honetan bakoitzak
bere bidea jarraituko du. Pablo eta
Garazi. Garazi eta Pablo.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Barañain:** XXI mendeko akor-
dioda: Bai euskarari kanpai-
naren barruan Mikel Markez
eta Pako Aristik *Tribuaren*
hitz galduak emanaldia
eskainiko dute gaur Kaioa
tabernan, 20:00etatik aurre-
ra.
- **Iruñea:** Gabonetako Musika
Zikloaren baitan Pablo Sara-
sate Orkestraren kontzertua
gaur Gaiarre antzokian,
arratsaldeko 20:00etan.
- **Atarrabia:** Contrabando talde-
aren kontzertua gaur, Tab-
ta aretoan, 23:30etan.
- **Iruñea:** Noizbait taldeak zuzen-
ean joko du, gaur, Txantrea
auzoko Akelarre tabernan,
gaueko 21:00etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

- **Lizarran:** Alfredo Diaz de Cerio-
ren 'Visiones del paisaje
navarro' margo erakusketa
gaurtik heldu den ilbeltzaren
31a arte.
- **Burlata** Udaleko Kultur Areto-
an Ana Zenborain margola-
riaren erakusketa dago
zabalik igandera arte.
- **Iruñea** Molmar galerian Iñigo
Manterolaren koadroak zin-
zilikatu dituzte. Erakusketa
hilaren 27a bitartean egon
da zabalik, astelehene-
tik ostiralera, 11:00etatik
13:30ak arte, eta 17:30etatik
20:30ak arte, eta igande eta
jai egunetan, berriz,
12:00etatik 14:00ak arte.

ANTZERKIA

- **San Adrian:** Kilkarak antzerki
konpainiak *Habitacion 689*
antzezlan taularatuko du,
gaur, Kultur Etxean, gaueko
21:30etatik aurrera.
- **Zizur Nagusia** AZ Kultur Pro-
dukzioak taldeak *Una chica
difícil* izenburuko lana aur-
keztuko du, gaur, Kultur

Etxean, gaueko 22:00etan.
Sarrerak 600 pezeta balio
du.

BESTELAKOAK

- **Iruñea** Amnesty International
elkarteko Fatima Andreo eta
- **Iruñea** Ingurugiro eta Zinema-

Txileko Alderdi Komunistako
Patricio Suarezek hitzaldia
emanen dute, gaur, Hizkuntz
Eskolaren egoitzan, 19:30e-
tan. Nazioarteko Giza Esku-
bideen Deklarazioaren 50.
urteurrena dela eta.

ri buruzko zikloa antolatu
du Nafarroako Gobernuak,
eta horren baitan, *Smila,*
misterio en la nieve pelikula
erakutsiko dute, gaur,
22:30etan, Golem zinema-
tan, eta, bihar, berriz, *El
desafío*.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

KOKOERRIAN PATATA-HAZIAK ETA EMAZTE-
KIAK MONTAÑAKOAK ZIREN LEHENAGO.
TOKI MALKARTSU HORIETATIK EGUTERE-
TARA ETORTZEAN, PATATARIK GOXOENAK
SORTZEN DIRA, ETA MUTIKORIK ERBIENAK.



PATATA KOKOAK
IRUÑERRIKO PATATAK